

DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2024

IVAP

1. «Jesús María Leizaola» 2024ko saria, edozein ikuspegi zientifikotatik egindako monografia izaera duten ikerlanetarako..... 2
2. Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak (EVETU) antolatutako XLIX. (49) Hirigintza Ikastaroan (2023-2024) aurreikusten den «erakunde edo enpresetan egin beharreko praktikaldia» egiteko, ikastaroko ikasleek dirulaguntza jasotzeko deialdia 4
3. Euskal administrazio publikoetako enplegatuen prestakuntza finantzatzeko laguntzak 6



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

«Jesús María Leizaola» 2024ko saria, edozein ikuspegi zientifikotatik egindako monografia izaera duten ikerlanetarako

2.- Araua

EBAZPENA, 2024ko maiatzaren 2koa, IVAPeko zuzendariarena, zeinaren bidez iragartzen baita «Jesús María Leizaola» 2024ko saria, euskal autonomia eta/edo XXI. mendeko politika publikoen garapenean eragina duten erronkei aurre egiteko gobernantza publikoa xede duten ikerlanetarako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

Deialdia

Esleipenaren Ebazpena

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

2024ko «Jesús María Leizaola» sariaren helburua da euskal autonomia, euskal autogobernua edo Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamendua, edo/eta globalizazioaren, eraldaketa digitalaren edo klima-aldaketaren erronken edo XXI. mendeko politika publikoen garapenean eragina duten beste erronka batzuei aurre egiteko gobernantza publikoari buruz egindako ikerlanak sustatzea eta zabaltzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Sariak:

- Ikerketa sustatzen du edozein ikuspegi zientifikotatik: euskal autonomia, euskal autogobernari, EAEko lurralde-antolamendua eta/edo XXI. mendeko politika publikoen garapenean eragina duten beste erronka batzuen gobernantza publikoa.
- Arlo horietan egindako ikerlanen zabalkundea bultzatzen du.

2024ko «Jesús María Leizaola» saria ex aequo eman zaio:

- Sofía Arana Landín andrearen «El Concierto Económico como palanca de cambio para la transición a la economía circular y la bioeconomía en Euskadi» lanari
- Mikel Larrinaga Ortiz jaunaren «El socorro de los infelices. El impacto de las reformas asistenciales en Gipuzkoa (1750-1850)» lanari.

Accesita hutsik geratu da. Aurkeztutako sei monografietakoa bat ez da onartu, sariaren deialdian eskatutako baldintzaren bat ez betetzeagatik.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Leizaola saria deialdira aurkeztutako hautagaien kopurua	5	6
Leizaola saria ematea	1	2
Leizaola saria akzesita ematea	1	0
EAetik eta Nafarroatik kanpo bizi diren Leizaola sariaren hautagaiak	1	2
Leizaola deialdian aurkeztutako lanak, saririk gabekoak baina argitaratuak	1	0
Leizaola saria deialdian ezarritakoarekin bat datozen aurkezturiko lanak	%100	%83,33



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak (EVETU) antolatutako XLIX. (49) Hirigintza Ikastaroan (2023-2024) aurreikusten den «erakunde edo enpresetan egin beharreko praktikaldia» egiteko, ikastaroko ikasleek dirulaguntza jasotzeko deialdia

2.- Araua

Deialdia (erakundeei zuzendua, ikasleak hartzeko): EBAZPENA, 2024ko maiatzaren 10ekoa, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariarena, erakundeentzako eta enpresentzako deialdia irekitzen duena, praktikak egingo dituzten ikasleak har ditzaten, IVAPen mendeko LHIEE Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak antolatutako «Hirigintza eta Lurralde Ikasketak XLIX. (49) Ikastaroa»ren esparruan (2023-2024). 2024/02420

Deialdia (ikasleei zuzendua, dirulaguntzak esleitzeko): EBAZPENA, 2024ko maiatzaren 10ekoa, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariarena, zeinaren bidez erakunde eta enpresetan egitekoak diren diruz lagundutako praktikak erregulatzen baitira eta haietan parte hartzeko deia egiten baitzaie Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak antolatutako «Hirigintza eta Lurralde-ikasketak XLIX. (49) Ikastaroa (2023-2024)» egiten duten ikasleei. 2024/02421

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

Deialdia (erakundeei zuzendua, ikasleak hartzeko)

Deialdia (ikasleei zuzendua, dirulaguntzak esleitzeko)

Esleipena (erakundeei)

Esleipena (ikasleei)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua da hirigintza ikastaroko ikasleek praktikak egitea enpresa edo erakundeetan, ikastaroan ikasitakoa praktikan ipintzeko eta euren prestakuntza osatzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeke eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

9 dirulaguntza-eskaintzatik 2 bete dira 2024an. (*Kontuan izan behar da ikastaroa egiten duten pertsonetako asko lanean daudela, eta praktika hauek ez direla bateragarriak eurentzat. Hori urtetik urtera alda daiteke, eta dirulaguntzen eskaeretan islatzen da).

Praktika hauek onuragarriak dira ikasleentzat zein enpresa/erakunde hartzaileentzat. Hirigintza ikastaroak gizartean dagoen behar edo hutsune bat betetzen du; Administrazio Publikotik bertatik bultzatzen da zerbitzu publiko egokia emateko (hirigintza eta lurralde antolamenduaren arloan) beharrezkoa den prestakuntza. Praktika hauen bidez administrazio publiko ezberdinak (administrazio orokorrari atxikitako



organismo autonomoa batetik eta toki erakundea* bestetik) biltzen dira eta elkarrekintzan jarduten dute, hirigintza eta lurralde antolamendua eraginkortuz.

Inkesten bidez jasotako emaitzetan islatzen da bai ikasleek bai eta hauek praktiketan hartzen dituzten erakundeek ere oso ondo baloratzen dutela dirulaguntza honen bidez gauzatzen den praktika-aldia.

Berdintasuna zein natura-ondarearen zaintza, biak ala biak, hirigintzako ikastaroan lantzen dira berariaz, eta, hala, ikasle horiek euren praktiketan -eta, beraz, erakunde horietan zein horietatik egiten den hirigintzan- ikuspegi horiek ere bermatzen dituztela.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Praktiketako ikasleen kopurua	9	2

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal administrazio publikoetako enplegatuen prestakuntza finantzatzeko laguntzak

2.- Araua

EBAZPENA, 2024ko uztailaren 3koa, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariarena, zeinaren bidez laguntza-deialdia egiten baita Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioetako eta foru-administrazioetako enplegatuen prestakuntza finantzatzeko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHA Ari Hiperesteka)

[2500046a.pdf](#)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza Programa honen helburua da ahal den erakunde publiko guztietan prestakuntza-plan edo programen ezarpena sustatzea eta finkatzea. Bestalde, aurkeztutako prestakuntza-plan edo -programek analisi edo diagnostiko batean oinarritu beharko dira.

Diru-laguntza Programaren helburuak:

1. adierazlea: prestakuntza-planen kopurua: 30
2. adierazlea: parte-hartzaileen kopurua: 86.000
3. adierazlea: programan parte hartzen duten erakundeen kopurua: 60

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

1. adierazlea: prestakuntza-planen kopurua: 25 (30 aurreikusitakoak)
2. adierazlea: parte-hartzaileen kopurua: 81.000 (86.000 aurreikusitakoak)
3. adierazlea: programan parte hartzen duten erakundeen kopurua: 46 (60 aurreikusitakoak)

Alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan lan egiten duten langileen prestakuntza etengabeko garapenean eta egokitzapenean dauden kalitatezko zerbitzu publiko batzuk eskaintzeko ezinbesteko elementutzat hartzeak, eta, bestetik, EAEko administrazio guztiek aurrean dituzten aurrekontu-zailtasunak aintzat hartzeak, horiexek bultzatzen gaituzte Diru-laguntza Programa hau abian jartzera.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
1. adierazlea: prestakuntza-planen kopurua	30	25
2. adierazlea: parte-hartzaileen kopurua	86.000	81.000
3. adierazlea: programan parte hartzen	60	46